



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailak 23**

**Vitoria-Gasteiz, 23 de julio de 2019**

## Lehendakaritza

### **450.000 €-KO LAGUNTZAK, BALKANETARA MUGITUTAKO ERREFUXIATUEI ARRETA EMATEKO**

- **Gobernu Kontseiluak Save The Childrenentzako (300.000) eta ACNURrentzako (150.000) laguntzak onetsi ditu**
- **Pasa den astean, 200.000 €-ko beste laguntza bat eman zitzaion UNICEFi, xede bererako**

Gobernuak, gaur, laguntzak onetsi ditu, guztira 450.000 €-an, eta kopuru hori Balkanetara mugitutako errefuxiatuei arreta emateko izango da. Zehazki, Save The Childreni 300.000 euroko zuzeneko laguntza ematea adostu da, eta ACNURri, errefuxiatuentzako NBEko Agentziari, 150.000 euroko beste bat.

Save The Childrenen kasuan, Belgradoko eta Bogovadjako (Serbian) eta Una Sanako kantoiko (Bosnia-Herzegovina) harrera-zentroetan dauden adingabeei hezkuntzako zerbitzuak eta kalitatekoak eskaintzera bideratuko da eta, gainera, Belgradoko parke eta aterpetxe informaletan errefuxiatu eta migratzaileei asistentzia ematera. GKE horren helburu nagusia estatuko instalazio formaletatik kanpora dauden adingabeei identifikazioa eta asistentzia ematea da, dauden estatuko instalazioetara jotzera motibatzeko.

Euskal laguntzaren bidez, 1.500 adingaberi, 100 aita-amari, zaintzaileri eta profesionali lagunduko zaie.

Umeak, bereziki bidaidarik ez dutenak, talde ahulenetako bat da; izan ere, zenbait indarkeria-motaren mende daude, sexu- edo genero-indarkeria barne, eta, sarritan, kontrabandista edo trafikatzaileen esku izaten dira.

### **Laguntza ACNURri**

Bestalde, ACNURren helburu nagusia aurtengo urterako nazioarteko babes behar duten pertsonentzako asilo eraginkorreko sistema sortzea da. Horrek esan nahi du asilo-prozeduretan ikuspegi harmonizatua har dadin bultzatzea, tokiko integrazioa sustatzea eta bereziki ahulak diren pertsonak identifikatzea eta beren beharretara egokitzen den erantzunari bide ematea.

150.000 euroko laguntza Una-Sana kantoiko eta Sarajevoko (Bosnia-Herzegovina) bizilagunei zuzenduko zaie, eta, funtsean, 11.208 errefuxiatu eta asilo-eskatzaile ingururi doako legezko asistentzia eta psikosoziala eta, egoera ahuleneko kasuetarako, larrialdietako ostatua ematean zentratzen da.

Pasa den astean, Gobernu Kontseiluak 200.000 euroko laguntza onartu zuen UNICEFentzat, Balkanetako gunean errefuxiatuen eta migratzaileen krisiari erantzuteko; hura Europara iristeko gehien erabiltzen den migrazio-ibilbideetan bigarrena da. 2015etik, milioi bat errefuxiatu baino gehiago, 300.000 ume barne, Balkanetatik igaro da, Europako bidean. Horietatik, Serbiara iristen direnen % 80 Afganistan, Siria eta Iraketik dator.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK EUSKADIKO FUNDAZIOEN LEGEA GARATZEN, ZEHAZTEN ETA INTERPRETATZEN DUEN ARAUDIA ONETSI DU

- Testuak bere bi funtzionamendu-organo nagusien funtzioak, lankidetzara eta komunikazioa arautzen ditu: “Protektoratua” eta “Fundazioen erregistroa”
- Jauzi kualitatiboa dakar administrazioko digitalizazioan, sinplifikazioan eta gardentasunean; izan ere, euskal fundazio-sektorearekiko harreman guztia erabat digitala da horrela
- Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritzak erregistroa itxiko die beren kontuak sasoiz aurkezteko eskakizunak betetzen ez dituzten fundazioei

Gobernu Kontseiluak onartu egin du, gaur, “*Euskadiko Protektoratuaren Araubidea eta Fundazioen Erregistroa onesten duen Dekretua*”. Testuak “9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko Fundazioei buruzkoa” garatzen, zehazten eta interpretatzen du, bi organo independente diren baina nahitaez lotura duten bi organoren funtzioen, lankidetzaren eta komunikazioaren inguruan; bi organo horiek Euskadiko “Protektoratua” eta “Fundazioen Erregistroa” dira. Horrela, araubide berriak jauzi kualitatiboa dakar legeriaren sinplifikazioan; izan ere, testu juridiko bakarrean jaso du fundazioei aplikagarri zaien araudi osoa eta, horrela, ulermen eta informazio globalari bide ematen dio. Modu berean, dekretu hau urrats oso handia da erabat digitala den administrazio-kudeaketa izateko; izan ere, aurrerantzean, fundazioekiko harreman guztia baliabide telematikoen bidez baino ez da izango. Aldaketa horren bidez, zerbitzu publiko gardena, arina eta teknologikoki aurreratu konfiguratu daiteke eta, horrela, euskal fundazio-sektorearen erregistro-informaziorako irisgarritasun osoari, fidagarriari eta kalitatekoari bide eman, baita erabateko segurtasun publikorako berme gisa ere.

Gaur onetsitako araudi-testu berriak 57 artikulua ditu, 3 kapitulutan, xedapen gehigarri batean eta iragankor batean banatuta.

### PROTEKTORATUA

II. kapituluak adierazten duen bezala, 6. artikulutik aurrera, “Protektoratua” aholkularitzako, laguntza teknikoko, fundazioen kontroleko eta ikuskaritzako administrazio-organoa da. Honako zeregin hauek ditu, besteak beste:

- ✓ Aholkularitza eratzeko prozesuan dauden fundazioei.
- ✓ Aholkularitza araubide juridikoan, ekonomiko-finantzarioan eta kontabilitatekoan.
- ✓ Fundazioen alderdiei buruzko argitalpen eta azterlanak sustatzea.
- ✓ Fundazioen izatea eta jarduerak zabaltzea.

- ✓ Fundazioetako patronatuen konposizioak kontrolatzea, bai eta kideak izendatzeko eta ordezkatzeko arauak ere, autokontratazioak baimentzea patronatuko kideen arteko balizko interes-gatazkak ebartziz, etab.
- ✓ Helburuak bete eta fundazioen jarduerak gauza daitezten bermatzea.
- ✓ Urteko prebentziozko ikuskaritza arruntak egitea, fundazioen araudia betetzen dela egiaztatzeke eta fundatzaileek duten interes orokorra eta fundazioen bideragarritasun ekonomikoa babesteko (13.1. art.).
- ✓ Ikuskaritzak egitea fundazioen eskakizunak eta araudia hausten den kasuetan. Fundazioek beren kontuak argi aurkeztu behar dituzte; horretarako, beren ondarearen, emaitzen, finantza-egoeraren eta ekitaldian zehar ondar garbian sortutako aldakuntzen eta garatutako jardueraren irudi zintzoa aurkeztu behar dute. Horretarako, 30 eguneko epea izango dute; epe hori igarotakoan, “Protektoratuak” erregistroa ixteko aginduko du, harik eta fundazioak kontuak antolatuta aurkeztu arte (27.7. art.). Era berean, fundazioek, ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteen barruan, jarduketa-plana aurkeztu beharko dute (28. art.), eta, hartan, honako hauek sartuko dituzte: gastu eta diru-sarreraren aurrekontua, fundazioak datorren ekitaldirako aurreikusitako jardueren azalpen-memoria eta jasotako datu ekonomikoen xehetasunak eta “Patronatua”ren onespina egiaztatzeke agiria.
- ✓ Fundazioen behin-behineko kudeaketa onartzea, kudeaketa ekonomikoan irregulartasun larria antzematen denean edo patronatua kide barik geratu bada, etab.

“Protektoratua”k “Aholku Batzordea” izango du (7. eta 8. art.), eta hura inskribatuko diren fundazioen helburuen interes orokorrari buruzko eta haien bideragarritasunari buruzko txostenak emateaz arduratuko da. Urtero, bere jarduerari buruzko memoria bat prestatu eta Eusko Jaurlaritzaren [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean argitaratuko du. Hartan, berariaz adieraziko dira eratutako fundazio-erakundeen kopurua, izaera eta xedeen tipologia; halaber, “Aholku Batzordea”ren beraren funtzionamenduari buruzko gainerako informazio esanguratsua adieraziko du.

## FUNDAZIOEN ERREGISTROA: KONTSULTATZEKO PUBLIKOA

III. kapituluak, 33. artikulutik aurrera, “Fundazioen Erregistroa” zerbitzu publiko gisa zehazten du, bertan gordetako edukia lege ezarritako segurtasun-baldintzen arabera ezagutzeko interesa dutenentzat. Horrela, edozein pertsonak kontsultatu ahalko du, 56. artikuluan zehaztutako bilakera-irizpideei jarraikiz.

“Fundazioen Erregistroa”ren eginkizunen artean honako hauek nabarmendu behar dira (34. art.):

- ✓ Fundazioetako egintzak kalifikatu eta inskribatzea.
- ✓ Urteko kontuak eta patronatuaren onespina egiaztatzen duen agiria jasotzea.
- ✓ Fundazioen derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea.

- ✓ Informazio-ohar sinpleak eta gordailututako idazpen eta dokumentuen kopia ematea, bai eta inskribatutako egintzen eta aipatzen dituzten artxibatutako edo gordailututako dokumentuen ziurtagiriak ere; hala ere, datu pertsonalak babestu beharko dira.
- ✓ Bere eskumeneko kontsultei erantzutea.

“Fundazioen Erregistroa” bi liburutan egituratzen da (35.2. art.): “Inskripzioen liburua eta urteko kontuen gordailua” eta “Legeztatzeen liburua”. Haietan, honako alderdi hauei buruzko informazio guztia jaso beharko da:

- ✓ Fundazioaren eraketa eta hasierako fundazio-zuzkiduraren ondoz ondoko gastuak.
- ✓ Pertsona fundatzaileen atxikipena, eraketa-eskrituran ezarritako epean.
- ✓ Fundazio-zuzkiduraren gorakada edo murrizketa.
- ✓ Patronatuko kideen izendapena, ordezkapena, etena edo kargu-uztea.
- ✓ Batzorde Betearazleetako edo delegatuetako kideen izendapena, ordezkapena, etena edo kargu-uztea.
- ✓ Batzorde Betearazleen edo delegatuen sorrera eta iraungipena, bai eta patronatuak egiten dituen ahalordetze orokorrak ere, auzietarako ahala eta haren errebokatzeak izan ezik.
- ✓ Atzerriko fundazioen ordezkaritzak.
- ✓ Euskaditik kanpora inskribatutako fundazioen ordezkaritzak eta haien aldaketak.
- ✓ Estatutu-aldaketak.
- ✓ Fusioa eta zatiketa.
- ✓ Fundazioak beste erakunde batzuk eraldatzea eta alderantziz.
- ✓ Fundazioaren iraungitzea eta likidatzea.
- ✓ Dagokion araudiak inskribagarritzat jotzen dituen egintzak.
- ✓ Behin-behineko kudeaketa baimentzen duen ebazpen judiziala, onartutako esleipenak, ezarritako epea eta, hala badagokio, haren luzapena adierazita.
- ✓ Oro har, egindako idazpenen edukia aldatzen duten egintzak edo, legeen aldetik inskripzioaren aurreikuspena dutenak.

Fundazioek beren akten, egunerokoen eta inbentarioen liburuak eta urteko kontuak Eusko Jaurlaritzaren [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoan legeztatu beharko dituzte, ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteak igaro aurretik. Legeztatzea modu automatizatuan egingo da, zigilu elektronikoaren bidez.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAK DIRULAGUNTZA BAT JASOKO DU, GAZTEAK EMANTZIPATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA BATERAKO

Gobernu Kontseiluak **50.000** euroko **dirulaguntza** onetsi du, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarentzat, **gazteak emantzipatzen laguntzeko programa** egiteko. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak laguntza gazteak emantzipatzeko adina aurreratzeko ekintzetarako laguntzetan sartzen du; izan ere, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak maiatzaren 27an Donostian egin zuen 39. Batzar Orokorrean etxebizitzako lan-arlo berria sortzea onetsi zuen, eta, horretarako, enpleguaren eta etxebizitzaren arloak bereizi egin zituen, arlo bakoitzak bere eremua sakonago lantzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazteak emantzipatzen laguntzeko programa berezia garatzen du, eta hainbat ekintza jaso ditu, besteak beste: **emantzipazioaren inguruan lan egiten duten agenteen sarea sortzea** eta **analisiak** egitea etxebizitzara jotzeko emantzipazio-ereduen eta laguntzen prozesu parte-hartzaileen bidez, administrazioari politika publikoak ezarri ahal izateko **ekarpen eta proposamenak egiteko**.

Zuzeneko dirulaguntza hori **Gazteria Zuzendaritzak kudeatuko du**; organo horrek hura emateko helburuak betetzen diren ikuskatuko du.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU SUSPERGINTZA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA EMATEKO, BERRIZEN MIGRATZAILEENTZAKO ALDI BATERAKO HARRERA ZABALDURAKO ETA ESPERIMENTALERAKO ZENTROA KUDEATZEKO

Gobernu Kontseiluak **Suspergintza Elkarteari** 203.780 euroko dirulaguntza ematea onetsi du, Euskadira iritsi diren eta ahultasun bereziko egoeran eta gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden **migratzaileei** harrera egiteko, **Berrizko Olakueta** aterpetxean, aurtengo urterako prestatutako **kontingentzia-planaren** prentsaurrekoan aurkezpenean zehaztu zen bezala.

2018ko ekainetik 2019ko martxora arte, Euskadira etengabe iritsi dira migratzaileak. Egoera horretan, euskal erakundeek beren baliabideak koordinatu dituzte eta, horretarako, Euskadiko Gurutze Gorriaren lankidetzarekin, larrialdietako harrerarako aterpetheen sistema ezarri dute. 2018ko ekainetik 2019ko martxora, **aterpetxe horietan 8.662 pertsonari eman zaie arreta, guztira.**

Aldi horretan, lau aterpetxe gaitu dira iragaitzako pertsonak hartzeko, honako udalerrri hauetan: **Bilbon**, 88 plaza; **Donostian**, 30 plaza; **Irunen**, 60 plaza, eta **Vitoria-Gasteizen**, 55 plaza.

Eusko Jaurlaritzak zenbait modutan dihardu lankidetzan pertsona lekualdatuen harreran eta laguntzetan, eta, hori dela eta, elkarlanean dihardu **Suspergintza Elkarteak Berrizko Olakueta aterpetxean kudeatzen duen migratzaileentzako aldi baterako harrera-zentro zabalduaren** gaikuntzan.

Berrizko Olakueta Etxea Migratzaile eta Errefuxiatuentzako Aldi Baterako Harrera Zentroa bizitegi-baliabidea da, eta haren helburua da **aldi baterako** iragaitzako migratzaileei, arreta humanitarioaren beharra dutenei eta/edo ahultasun-egoeran dauden eta beren migrazio-proiektuarekin jarraitzeko egonaldi luzeagoa behar duten nazioarteko babesaren eskatzaileei harrera egitea.

Baliabidearen helburu nagusia da aldi baterako ostatua ematea, eta ahultasun-egoeran dauden pertsona horiei arreta pertsonalerako eta gizarte-integrazioarako prozesua ematea.

Gaur egun, azpiegitura horrek **guztira 58 plaza ditu; horietatik, 34 ahultasun bereziko egoeretan dauden pertsonentzat** (iragaitzazkoak, humanitarioa eta bestelako egoerak) eta **24 plaza, nazioarteko babesaren eskatzaileentzat.**

Zentroaren kudeaketa Suspergintza Elkarteak eta Susperu SL gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak egiten dute, Euskadiko Gurutze Gorriarekin, CEAR elkartearekin, Berrizko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinazioan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI ETA NATURA ONDAREAREN KONTSERBAZIOARI BURUZKO LEGE PROIEKTUAK ONARTU DIRA

Gobernu Kontseiluak onartu egin ditu, gaur, Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren proposamenez, Ingurumen Administrazioari eta Natura Ondarearen Kontserbazioari buruzko Lege Proiektuak.

Natura Ondarearen Kontserbazioari buruzko Lege proiektuak naturaren kontserbazioaren alorrean eskumen- eta gobernantza-banaketa berrikusten du, administrazio publikoen jarduera arautu –Eusko Jaurlaritza, foru-organoak eta tokiko erakundeak– eta horiek behar bezala ulertzeko lankidetzarako mekanismoak ezarri.

Proiektuak natura ondarea ezagutu, planifikatu eta babesteko tresna orokorrak garatzen ditu, eta alor horretako informazio osoa Euskadiko Naturaren Informazio Sistemara txertatzeko beharrezana biltzen du.

Datozen zortzi urteetan jarraitu beharreko Euskal Estrategia ere ezartzen du, eta epe luzera administrazioek partekatuko duten norabidea ezartzen du helburu eta ekintzei dagokienez; eta Eusko Jaurlaritzako natura-ondarearen alorreko Dekretu eta Aginduak izapidetu eta onartzeko prozedura aldatzen du, Natura Baliabideen Antolaketarako Planak esaterako. Halaber, proiektuak babestutako natura-espazioak nazioarteko irizpideen arabera berrikusten ditu, eta estatuko araudikoak eta autonomikoetako araudikoak bereizten ditu, Red Natura 2000 eta aplikagarriak diren nazioarteko tresnak (RAMSAR, Unesco, etb.) barne.

Bioaniztasunaren kontserbazioa bermatzen du, flora eta faunaren basa-espezieiak eta horiek habitatak babestu eta babesa behar dutenentzako berariazko erregimenak ezartzen ditu. Natura ondarea babesteko sustapen-neurriak eta neurri ekonomiko-finantzarioak sortzen ditu, baita babestutako guneetan, garapen-programen, erregimen indemnizatzaile, lursailen zaintzaren eta jabe pribatuekin egindako hitzarmenen bidez, garapen sozioekonomikoa sustatzeko ere.

### Ingurumen administrazioa

Bere aldetik, Ingurumen Administrazioari buruzko Lege proiektuak, administrazio-simplifikazioko irizpideak oinarri, ingurumen-administrazioak esku hartzeko prozedurak antolatzen ditu. Arauak enpresek eduki beharreko ingurumen-baimenak arautzen ditu eta, orokorrean, eragina duen edozein jarduerarenak, baita ikuskaritza- eta zigor-prozedurak ezarri ere.



Lege konplexua da, 118 artikulua ditu, hamar xedapen eta 12 eranskin. Europako Batzordearen "araudi adimentsu" kontzeptuari jarraitzen dio, arauak herritarren funtzioa indar dezaten, horiek bizitza sozioekonomikoan duten eragina azter dezaten, orokorrean, eta administrazio-simplifikaziorantz egin dezaten, prozedurak batu eta beharrezkoak ez diren izapideak kenduta.

Plan, proiektu eta programen ingurumen-ebaluaziorako prozedura ezberdinak argitu eta laburtzen ditu, epeak murriztu (gardentasun eta bermeen kaltetan izan gabe), INGURUNET izapide elektronikorako sistema berriaren bidez.

Gainera, lehenbiziko aldiz, estatu mailan ezarriko da obra publikoen materialen % 40a, gutxienez, balorizaziotik eta hondakinen birziklapenetik etorri behar dela. Fiskalitate ekologikoaren aldeko apustua ere egiten du, eta ezartzen du lortutako sarrerek aurrekontu-partida bat sor dezaketela, urtean, zehazki ingurumenaren babesarekin lotutako jarduerak jorratzeko.

Kontrol eta zigorretarako markoan, ezartzen da pertsona fisiko zein juridikoek ezingo dutela Administrazioarekin kontraturik egin, edo laguntza publikorik jaso, ingurumenari buruzko arau-hauste larri edo oso larriak egin badituzte, babesteko neurriak hartu edo zigorra ordaindu ez duten bitartean. Horretarako, arau-hausleen Erregistroa sortuko da, behin betiko ebazpena izan dutenentzat, eta zigorren berri emango da.

Berria da, baita ere, ordezeko ingurume-zerbitzua. Hau da, zigor batzen kasuan, isunak jaso ordez, birgaitu, kontserbatu edo hobetzeko ekintzak egin beharko dituzte, ingurumenaren onurarako.

Bi legeotan jasotzen da egun ingurumen-alorrean parte-hartze eta erabakitzerako dauden elkargo-organoen arteko koordinazioa (Ingurumeneko Batzorde Aholkularia, Ingurumen Batzordea eta Natura Batzordea-Naturzaintza) Euskadiko Ingurumen Batzordean. Batzorde horrek bere gain hartuko du eragile sozial, ekonomiko, zientifiko eta abarren benetako parte-hartzearen dinamizazioa, ingurumen, natura ondarearen kontserbazio eta klima-aldaketaren politika publikoen diseinu eta exekuzioan.

## Ogasun eta Ekonomia

### FINANTZA-MAILAN JASANGARRIAK DIREN EUSKO JAURLARITZAREN INBERTSIOAK –FJI-IFS– 100 MILIOI EURO INGURUKOAK IZANGO DIRA 2019AN

- 97,8 milioi euroko jarduketak egingo dira, Estatuko Aurrekontu Orokorren 116. Xedapen Gehigarriarekin bat egiteko aukera baitago
- FJI-IFSen zenbatekoa 2018an baino %80 altuagoa da, iaz egindako inbertsioak 54,4 milioi eurokoak izan baitziren
- Inbertsioari emandako bultzada horrek bikoiztu egiten du aurrekontuan aurreikusitako %7,4a, 2019an %15era hurbilduz
- Ekintzek zeharkako eragina dute, hainbat sailtako inbertsioak finantzatzen baitituzte

Eusko Jaurlaritzak Finantza-mailan Jasangarriak diren 97,8 milioi euroko Inbertsioak –FJI-IFS– egingo ditu 2019an, Estatuko Aurrekontu Orokorren 116. Xedapen Gehigarriarekin bat egiteko aukera baitago. Horretarako, Gobernu Kontseiluak 71,8 milioi gehitzea onetsi du gaur. Xedapen horri esker, superabita duten eta berankortasun arautegia eta zor publiko helburua betetzen dituzten Autonomia Erkidegoek, zenbait inbertsio egin ditzakete gastu arau bakoitzean ezarritako mugaren gainetik.

FJI-IFSen zenbatekoa 2018an baino %80 altuagoa da, iazko inbertsioak 54,4 milioi eurokoak izan baitziren. Inbertsioari emandako bultzadak bikoiztu egiten du aurrekontuan aurreikusitako %7,4a, 2019an %15era hurbilduz.

Ekintzek zeharkako eragina dute, sail hauetako inbertsioak finantzatzen baitituzte:

<b>FINANTZA-MAILAN JASANGARRIAK DIREN INBERTSIOAK 2019</b>	
	<b>m/€</b>
INGURUMENA, LURRALDEAREN PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	28.522.047
EKONOMIAREN GARAPENA	25.950.000
OSASUNA	24.686.283
ENPLEGUA ETA GIZARTE ZERBITZUAK	7.988.431
HEZKUNTZA	6.656.691
LANA ETA JUSTIZIA	2.857.706
LANKIDETZA	650.000
SEGURTASUNA	494.480
<b>GUZTIRA</b>	<b>97.805.638</b>

Ingurumen, Lurraldearen Plangintza eta Etxebizitza Sailean jasotzen diren inbertsioak, guztien %30 inguru, etxebizitza erostera daude zuzenduta batez ere, egoera eskasenean dauden kolektiboentzako alokairu soziala sustatzeko. Horrez gain, beste jarduketak batzuk ere jasotzen dira, uholdeen kontrakoak, udalerrietan egiten diren saneamendu eta hornidura ekintzak, aire kalitatearen sarea hobetzeko lanak, etxebizitzetan energia kontrolatzeko jarduketak eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, Lagako eta Laidako hondartzen artean, oinezkoentzat dagoen ibilbidearen egokitzapena, besteak beste.

Osasun arloan egiten diren inbertsioak Osakidetzako zenbait instalazioren hobekuntzan eta osasun ekipamendu berriak eskuratzean zentratzen dira, batez ere, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailekoak garraio jasangarriagoa lortzera daude zuzenduta.

Enplegura eta Gizarte Politiketara zuzendutako inbertsioen jasotzaile nagusia Lanbide izango da, lokalak hobetzeko eta eskuratzeko. Hezkuntza, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekipamendua eta makineria eskuratzen zentratuko da, eta Justizia eta Lan Sailak hiru Lurraldeetako Justizia Jauregietan hobekuntzak egitera bideratuko ditu dagozkion kopuruak, klimatizazioan, iragazgaiztean, irisgarritasuna hobetzeko igogailuak instalatzean, etab. Horrez gain, partida bat Osalanera bideratuko da, laneko osasuna hobetzen jarraitzeko xedez.

Amaitzeko, Lankidetzarako Euskal Agentzia izango da Lehendakaritza Sailari dagokion zenbatekoaren hartzailea, eta Segurtasun Sailak energia arloko berriztatze lanak egingo ditu Sestaoko komisarian.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK BILBOKO GUGGENHEIM MUSEORAKO 1.000.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU, 2013 ETA 2016 URTEEN ARTEAN EGINDAKO EKARPEN TXIKIAGOA KONPENTSATZEKO**

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, aurten, beste milioi bat euro emango ditu obra berria erosteko**

Eusko Jaurlaritzak, bere gaurko Gobernu Kontseiluan, 1.000.000 euroko dirulaguntza onartu du Guggenheim Bilbao Museorako, krisi ekonomikoaren ondorioz 2013-2016 epean egindako ekarpen txikiagoa konpentsatzeko. Era horretan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2019. urteko aurrekontuen proiektuaren aurkezpenean jada iragarritako konpromisoa betetzen du.

Gaur egindako bileran, Gobernu Kontseiluak Guggenheim Bilbao Museorako aparteko ekarpen ekonomiko hori onartu du. Aurten, ekarpen hori urtero erakunde honi egiten zaion ekarpenari eta obra berria erosteko aparteko ekarpenari gehituko zaie. Hortaz, iazko azaroaren 8an Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak iragarri zuen moduan, 2019an Eusko Jaurlaritzak ia 7,5 milioi euro emango dizkio Bilboko museoari. Jaurlaritzak 5.415.000 euro jarriko ditu ekarpen arrunt gisa, milioi bat euro 2013-2016 epean ekarpen txikiagoa egin izana konpentsatzeko eta, hirugarrenik beste milioi bat euro obra berria erosteko.

2018-2020 eperako Plan Estrategikoaren barruan, euskal erakundeek jada erabaki zuten Museoaz arduratzen den sozietateari diru gehiago emateko asmoa, obra berria erosteko ahalmena berreskuratzeko. 2018. urtearen amaiera aldera, Eusko Jaurlaritzak 500.000 euroko inbertsioa onartu zuen obra berria erosteko. Ekarpene hori aurtengo kopuruari gehitu zaio.

Aurten Guggenheim Museorako inbertsioa handitzeko apustuak, Bilboko Arte Ederren Museorako eta Gasteizko Artium Museorako aurtengo urterako onartutako gehikuntza ekonomikoekin batera, artearen euskal sistema indartzeko helburua dauka. Lehengo astean zerbaitegatik onartu zituen Gobernu Kontseiluak Bilboko Arte Ederren Museorako eta Artium Museorako aparteko laguntzak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EURO BIDERATUKO DITU MUSEOEN ETA BILDUMA PRIBATUEN LANA BABESTERA**

- **Dirulaguntza hauen bitartez, erakusketen eguneratzeak, aldi baterako erakusketak eta jarduera didaktikoak diruz lagunduko dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 700.000 euro onartu ditu, bere gaurko bilera, 2019an museoen eta bilduma pribatuen lana diruz laguntzeko Euskadin. Dirulaguntza deialdi horren bitartez, Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan inskribatutako bildumen edo museoentzako titularrek sustatutako proiektuak eta ekimenak babestuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren laguntza-lerro honen bitartez diruz lagundu daitezkeen proiektuek ondorengo jarduketako ildo estrategiko hauetako baten barne kokatu beharko dute:

- Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.
- Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- Tematika eta jarduketa-esparru horrekin bat datozen didaktika- eta hedapen-jarduerak diseinatzea eta eskaintzea.
- Gai eta jarduketa-esparru horrekin lotutako ezagutza sortzea.
- Museoaren hedapen- eta komunikazio-planeari eta kudeaketan berrikuntza sustatzea eta hobetzea.

Bestalde, laguntza horiek jaso ditzaketen jarduerari dagokienez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak honako hauek aurreikusten ditu:

- Bilduma dokumentatzea, oro har, EMSIME informazio-sistema erabiliz
- Erakusketa iraunkorra eguneratzea
- Aldi baterako erakusketak.
- Museoaren jarduketa-esparruarekin eta tematikarekin bat datozen jarduera didaktikoak eta ludiko-kulturalak.
- Bildumetako ondareari buruzko ikerketa-lanak, bertan lortutako emaitzak erakusketetan, jarduera didaktikotan eta kultura hedatzeko jardueratan erabiltzeko.
- Bildumei buruzko eduki zientifikoak eta dibulgatzaileak editatzea eta itzultzea, katalogo, monografia, aldizkako argitalpen, ikus-entzunezko eta multimediatiko argitalpen moduan, gutxienez formatu digitalean argitaratzeko.
- Kudeaketaren berrikuntzarako eta hobekuntzarako dokumentuak eta azterketak lantzea: Plan estrategikoak, gida-planak, zerbitzu-kartak, bideragarritasun-azterketak, publiko-azterketak, komunikazio eta kultur marketin-planak, jardueren programazioa eta barne-kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak diagnostikatzea eta planifikatzea.
- Museoaren web-orria sortzea eta hobekuntza teknikoak egitea.

Iaz, 40 dirulaguntza eman ziren 24 museok, udalek, kultur etxek edo elkartetan sustatutako proiektu edo ekimenetarako.

## Presidencia

### **AYUDAS POR 450.000 € PARA ATENDER A LA POBLACIÓN REFUGIADA DESPLAZADA EN LOS BALCANES**

- **El Consejo de Gobierno ha aprobado ayudas a Save The Children (300.000) y ACNUR (150.000)**
- **La semana pasada se concedió otra ayuda de 200.000 € a UNICEF para el mismo destino**

El Gobierno ha aprobado hoy ayudas por un total de 450.000 € cuyo destino será atender a la población refugiada desplazada en los Balcanes. En concreto, se ha acordado conceder una ayuda directa de 300.000 euros a Save The Children y otra de 150.000 euros a ACNUR, la Agencia de la ONU para los refugiados.

En el caso de Save The Children será destinado a ofrecer servicios educativos y de calidad a las y los menores que se encuentran en centros de acogida de Belgrado y Bogovadja (en Serbia), y en el cantón de Una Sana (en Bosnia y Herzegovina), y dar, además, asistencia a personas refugiadas y migrantes en los parques y refugios informales de Belgrado. El objetivo principal de esta ONG es la identificación y asistencia a aquellos menores que están fuera de las instalaciones formales estatales, a fin de motivarles para que accedan a las instalaciones estatales existentes.

La ayuda vasca servirá para dar cobertura a un total de 1.500 menores, 100 padres y madres, cuidadores y profesionales.

Los niños y las niñas, especialmente los no acompañados, constituyen uno de los grupos más vulnerables, ya que están expuestos a diferentes tipos de violencia, incluida la violencia sexual o de género, y a menudo caen en manos de contrabandistas o traficantes.

#### **Ayuda a ACNUR**

Por su parte, el objetivo principal ACNUR para este año es crear un sistema de asilo eficaz para las personas que necesitan protección internacional. Esto incluye, apoyar la adopción de un enfoque armonizado en los procedimientos de asilo, impulsar la integración local e identificar a las personas especialmente vulnerables y facilitar la respuesta adecuada a sus necesidades.

La ayuda de 150.000 euros irá dirigida a residentes en el cantón de Una-Sana y Sarajevo (Bosnia y Herzegovina) y se centrará, fundamentalmente, en proveer a alrededor de 11.208 personas refugiadas y solicitantes de asilo, asistencia legal y psicosocial gratuita, así como de alojamiento de emergencia para los casos en situación más vulnerable.

La pasada semana, el Consejo de Gobierno dio luz verde a una ayuda de 200.000 euros a UNICEF, para dar respuesta a la crisis de personas refugiadas y migrantes en la zona de los Balcanes, considerada la segunda ruta de migración más usada para llegar a Europa. Desde 2015, más de un millón de personas refugiadas, incluidas 300,000 niños y niñas, han pasado por los Balcanes en su camino hacia Europa. De estas, más del 80% de las que llegan a Serbia provienen de Afganistán, Siria e Iraq.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO APRUEBA EL REGLAMENTO QUE DESARROLLA, CONCRETA E INTERPRETA LA LEY DE FUNDACIONES DE EUSKADI

